

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

**DONOSTIAKO UDALA**

*Aisialdirako eta elkartzeko gazteek erabiltzen dituzten lokalak arautzen dituen ordenantzaren behin betiko onespena.*

Donostiako Udaltzatik, 2015eko urtarrilaren 29ko bilkuran, aisialdirako eta elkartzeko gazteek erabiltzen dituzten lokalak arautzen dituen ordenantzari hasierako onespena eman zion.

Jendaurreko epea bukatuta, ez da iradokizunik edo alegaziorik aurkeztu, ondorioz, Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 49. artikuluko azken paragrafoan ezarrita dagoenez, ordu arte behin-behinekoa zen erabakia behin betiko onartutzat jo behar da.

Ados ez dagoenak bi hilabete du errekurtsioa jartzeko Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Sailaren aurrean.

Esandako epea argitalpen honen hurrengo egunetik aurrera hasiko da kontatzen.

Bestetik, Legea 7/1985, apirilaren 2ko Toki Jaurbidearen Oinarriak Arautzeko 70.2 artikuluan agintzen duena betez, berau argitaratzera goaz.

Donostia, 2015eko martxoaren 30a.—Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga, Udaltzataren idazkari nagusia. (3187)

AURKIBIDEA

*Gazteen aisiarako eta elkartzeko gune diren lokalak arautzeko udal ordenantza.*

- I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.
1. artikulua. Xedea.
  2. artikulua. Aplikazio eremua.
- II. KAPITULUA. ADMINISTRAZIO PROZEDURA.
3. artikulua. Jarduera sailkatua aurretiaz jakinaraztea.
  4. artikulua. Obra lizentzia.
  5. artikulua. Jarduera erregistratzea.
  6. artikulua. Gazteria Zerbitzuaren jarduna.
- III. KAPITULUA. LOKALEN ERAIKUNTZA ETA ERABILERA BALDINTZAK.
7. artikulua. Hirigintzako eta arkitekturako baldintzak.
  8. artikulua. Suteak prebenitzeko baldintzak.
  9. artikulua. Osasun eta ingurumen baldintzak.
  10. artikulua. Zaratak eta bibrazioak transmititzeari dagozkion baldintzak.
  11. artikulua. Erabilera baldintzak.
- IV. KAPITULUA. IKUSKAPENA ETA KONTROLA.
12. artikulua. Administrazio ahalmenak.
  13. artikulua. Ikuskatze eta kontrol jarduera.

**AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN**

*Aprobación definitiva de la ordenanza reguladora de los locales destinados a espacios de ocio y reunión de jóvenes.*

El Excmo. Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día 29 de enero de 2015, aprobó inicialmente la Ordenanza reguladora de los locales destinados a espacios de ocio y reunión de jóvenes.

Transcurrido el plazo de exposición pública no consta que se haya presentado sugerencia ni reclamación alguna, por lo que, de conformidad con lo dispuesto en último párrafo del artículo 49 de la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases del Régimen Local, debe entenderse definitivamente adoptado el acuerdo de aprobación inicial.

Este acuerdo pone fin a la vía administrativa y podrá ser impugnado directamente ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses.

Este plazo se computará desde el día siguiente al de la publicación de este anuncio.

De conformidad con lo dispuesto en el art. 70.2 de la citada Ley 7/1985, a continuación se procede a su publicación.

San Sebastián, a 30 de marzo de 2015.—El secretario general del Pleno, Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga. (3187)

INDICE

*Ordenanza municipal reguladora de los locales destinados a espacio de ocio y reunión de jóvenes.*

- CAPITULO I. DISPOSICIONES GENERALES.
- Artículo 1. Objeto.
- Artículo 2. Ámbito de aplicación.
- CAPITULO II. PROCEDIMIENTO ADMINISTRATIVO.
- Artículo 3. Comunicación Previa de Actividad Clasificada.
- Artículo 4. Licencia de Obras.
- Artículo 5. Registro de la actividad.
- Artículo 6. Actuación del Servicio de Juventud.
- CAPITULO III. CONDICIONES DE EDIFICACIÓN Y USO DE LOS LOCALES.
- Artículo 7. Condiciones urbanísticas y arquitectónicas.
- Artículo 8. Condiciones de prevención contra incendios.
- Artículo 9. Condiciones sanitarias y ambientales.
- Artículo 10. Condiciones de transmisión de ruidos y vibraciones.
- Artículo 11. Condiciones de uso.
- CAPITULO IV. INSPECCIÓN Y CONTROL.
- Artículo 12. Facultades administrativas.
- Artículo 13. Actividad inspectora y de control.

14. artikulua. Hartu beharreko neurriak.  
V. KAPITULUA. ZIGOR ERREGIMENA.  
15. artikulua. Arduradunak.  
16. artikulua. Arau haustekak.  
17. artikulua. Arau haustekak preskribatzea.  
18. artikulua. Mailakatzea.  
19. artikulua. Zehapenak.  
20. artikulua. Zehapenak preskribatzea.  
21. artikulua. Zehatzeko prozedura.  
ALDI BATERAKO XEDAPENA.  
AZKEN XEDAPENA.  
ERANSKINA.  
Jarduera sailkatua aurretiaz jakinarazteko ereduak.

*Gazteen aisiarako eta elkartzeko gune diren lokalak arautzeko udal ordenantza.*

#### ZIOEN ADIERAZPENA

Gazteek beren astialdian taldean gozatzeko alokatutako lokalak, agertu berriak ez diren arren, gorantz datorren gizarte gertakaria dira gure ingurunean. Kolektibo horrek gizartekotzeko, elkartzeko eta jolas nahiz aisia jarduerak egiteko gune alternatiboak behar dituelako sortu dira.

Udalak lokal horietaz duen informazioa (zein diren, haien konfigurazioa, ezaugarriak, segurtasun eta osasungarritasun egoera) lausoa eta zatikatua da. Izan ere, haien zentsurik eta erregistrorik ez da, ez eta gertakari horrek eragindako udal zerbitzu eta sailen arteko ekintza koordinatu eta proaktiborik ere; haietako bakoitzak bere eskumeneko eginkizunei lotutako alderdietara bideratzen ditu ahaleginak.

Berri samarra den gertakari horrek eskatzen du udal arautze eta kontrolatze lanen araubide berariazko bat, aisiako jardunbide berri hori koordinatuko duena, bi alde hauek bermatze-arren eta bateragarri egitearren: batetik, gazteek elkartzeko, antolatze eta gizartekotzeko duten eskubidea; eta, bestetik, eskubide hori segurtasun, osasungarritasun eta ongizate baldintza egokietan gauzatzea, hala gazteentzat nola kokaleku duten komunitatearentzat.

Ordenantza honen asmoa da, lehenik, hain gertakari nabarmen bezain goranzko horretan Donostiako Udalaren jarduna arautzea. Horretarako, administrazio prozedura ezartzen du: «jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpena» deritzona aurkezteko betebeharrak. Era berean, ordenantza honen asmoa da, bigarrenik, gazteen aisiako lokalen udal erregistroaren sorrera arautzea. Erregistro horri esker, erabilera horretarako behar adinako betekizun tekniko eta legal betetzen dituzten lokalei buruzko argibide gehiago eman ahalko zaie gazteei, edozein alokatze kontratu izenpetu baino lehen. Ordenantza honen asmoa da, hirugarrenik, gazteen aisiarako lokalek bete beharreko ezaugarri eta baldintzak finkatzea, hala hirigintzaren eta arkitekturaren arloan, nola suak prebenitzearen, osasunaren, ingurumenaren eta lokal erabilerearen gaian. Eta, laugarrenik, ikuskatze eta kontrolatze jarduerak arautzea, bai eta zehapen araubidea ere, arau haustekak eta haien zehapenak eta erantzuleak zehazturik, lokalen jabeak barne.

Bestetik, berriaz xedatu da Udalaren esku hartzea, Gazte-ria Zerbitzuaren bitartez, informatzearen, sentiberatzearen eta orientatzearen arloan. Horretarako, taldetik gazteen ordezkari bat izendatzea xedatu da, Udalaren eta erabiltzaile horien arteko elkarrekin bideratzearen. Horren helburua da jarduera hori gauzatzeko arazorik sortzea saihestea edo sortutakoak konpontzea.

- Artículo 14. Medidas a adoptar.  
CAPITULO V. RÉGIMEN SANCIONADOR.  
Artículo 15. Personas responsables.  
Artículo 16. Infracciones.  
Artículo 17. Prescripción de las infracciones.  
Artículo 18. Graduación.  
Artículo 19. Sanciones.  
Artículo 20. Prescripción de las sanciones.  
Artículo 21. Procedimiento sancionador.  
DISPOSICIÓN TRANSITORIA.  
DISPOSICION FINAL.  
ANEXO.  
Modelo de comunicación previa de actividad clasificada.

*Ordenanza municipal reguladora de los locales destinados a espacio de ocio y reunión de jóvenes.*

#### EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El fenómeno de los locales alquilados por jóvenes para disfrute colectivo de los mismos en su tiempo libre, aunque no nuevo del todo, es un fenómeno social emergente en nuestro entorno que surge ante la necesidad de este colectivo de disponer de espacios alternativos de socialización, encuentro y desarrollo de actividades lúdicas y de ocio.

La información que el Ayuntamiento tiene sobre la existencia de estos locales y sobre su configuración, características, condiciones de seguridad y salubridad es difusa y fragmentada, al no existir un censo y registro de los mismos, ni una acción coordinada y proactiva entre los diferentes servicios o departamentos municipales afectados por este fenómeno, ya que cada uno de ellos concentra su esfuerzo, exclusivamente, en los aspectos que tienen relación con las funciones que tiene encomendadas.

Este fenómeno, relativamente reciente, requiere de un régimen específico de regulación y control municipal que coordine esta nueva práctica de ocio de forma que se garantice y compatibilice tanto el derecho de las personas jóvenes a reunirse, organizarse y socializarse como que su desarrollo se efectúe en unas condiciones de seguridad, salubridad y bienestar adecuadas, tanto para ellos como para las comunidades en las que se radican.

La presente Ordenanza pretende regular la actuación del Ayuntamiento de San Sebastián en este fenómeno tan sensible como creciente, para lo que establece el procedimiento administrativo, que se traduce en la obligación de presentar la llamada «comunicación previa de actividad clasificada», y regular la creación de un registro municipal de locales de ocio juvenil, que permitirá proporcionar a las personas jóvenes una mayor información de los locales que cuentan con los requerimientos técnicos y legales suficientes para poder ser destinados a ese uso, de forma previa a la suscripción de cualquier contrato de arrendamiento; fijar las características y condiciones que deben cumplir los locales de ocio juvenil, tanto en el ámbito urbanístico y arquitectónico, como en materia de prevención de incendios, sanitario, medioambiental y de uso de los mismos; regular la actividad de inspección y control, así como el régimen sancionador, concretando las infracciones y sanciones y los responsables de las mismas, incluidos las personas propietarias de los locales.

De otro lado, se prevé expresamente la intervención del Ayuntamiento, a través del Servicio de Juventud, en materia de información, sensibilización y orientación. A tal fin se contempla la designación de un representante de las personas jóvenes de entre el grupo, a fin de facilitar el diálogo entre el Ayuntamiento y dichos usuarios, en orden a evitar o solucionar cuestiones que puedan surgir en el ejercicio de la actividad.

Azkenik, ordenantza honek badu xedapen iragankor bat. Haren bitartez, ordenantzaren indarraldia hasi baino lehen jardunean diren lokalei beren egoera legeztatzeke sei hilabeteko epea ematen zaie; horretarako, jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpena aurkeztu beharko dute. Epe hori ordenantzaren indarraldia hasten den egunaren biharamunetik hasiko da, hots, ordenantza Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunaren biharamunean, xedapen iragankorrean zehaztu denez.

## I. KAPITULUA

### XEDAPEN OROKORRAK

#### 1. artikulua. Xedea.

1. Ordenantza honen xedea da gazteen aisiarako eta elkartzeko gune diren lokalen erabilera arautzea, bi alde hauek bermatzearren eta bateragarri egitearren: batetik, gazteek elkartzeko, antolatzeke eta gizartekotzeko duten eskubidea; eta, bestetik, eskubide hori segurtasun eta osasungarritasun baldintza egokietan gauzatzea, hala gazteentzat nola inguruan duten komunitatearentzat.

2. Ordenantza honen ondorioetarako, gazteen aisiarako eta elkartzeko gune diren lokalizat hartzen dira titulartasun pribatukoak diren eta irabazi asmorik gabeko jardueretarako diren lokalak, elkartzetaz eratu gabeko gazte taldeek beren astialdian biltzeko, elkartzeko eta gizartekotzeko erabiliak.

3. Ordenantza honen ondorioetarako, gazte taldetzat hartzen dira oro har 15 urtetik 35era bitarteko gizabanakoek eratutako taldeak.

#### 2. artikulua. Aplikazio eremua.

Ordenantza hau bete beharrean dira aurreko artikuluan sartutako lokal, establezimendu eta instalazio guztiak, jarduera Donostiako udalerrian dutenak. Berdin dio ea haien titularrak edo antolatzaileak pertsona fisikoak edo juridikoak diren, eta jarduera ohikoa edo noizbehinkakoa duten.

## II. KAPITULUA

### ADMINISTRAZIO PROZEDURA

#### 3. artikulua. Jarduera sailkatua aurretiaz jakinaraztea.

Jarduera hasi aurretik, jardueraren sustatzaileak jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpena aurkeztu beharko du -emantzipatu gabeko adingabekoa izanez gero, ordezkariaren sinadura duela-, horretarako egin den eta ordenantza honen eranskintzat jasota dagoen ereduari jarraituz, eta eranskinean zehaztutako dokumentu guztiak ekarrita.

Halaber, jarduera hasi aurretik, jarduera kokatuta dagoen komunitatearen estatutuak aurkez ditzake, informazio huts gisa, baita gizarte erantzukizuneko aseguruia ere -halakorik izanez gero-.

#### 4. artikulua. Obra lizentzia.

Edozein motatako obra egin behar bada, 3. artikuluan ezarritako eran jardueraren aurretiazko jakinarazpena aurkeztu baino lehen, dagokion obra lizentzian jaso eta baimendutako obrak eskatu, lortu eta gauzatu beharko dira.

#### 5. artikulua. Jarduera erregistratzea.

Udalak gazteen aisiarako eta elkartzeko gune diren lokalen erregistroa garatuko du, ordenantza honen bitartez biltzen dituen datuetan oinarriturik.

Finalmente, la Ordenanza contiene una Disposición Transitoria, en virtud de la cual se concede a los locales que estén funcionando con anterioridad a su entrada en vigor, un plazo de seis meses para que regularicen su situación, presentando la preceptiva comunicación previa de actividad clasificada. Dicho plazo se computa desde el día siguiente a la entrada en vigor de la Ordenanza, es decir, que tendrá lugar al día siguiente de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, como estipula su Disposición Final.

## CAPITULO I

### DISPOSICIONES GENERALES

#### Artículo 1. Objeto.

1. El objeto de la presente Ordenanza es regular el uso de los locales destinados a espacio de ocio y reunión de jóvenes, a fin de garantizar y compatibilizar tanto su derecho a reunirse, organizarse y socializarse, como que su ejercicio se desarrolle en condiciones de seguridad y salubridad adecuadas, tanto para las personas jóvenes, como para la comunidad en la que se desenvuelven.

2. A efectos de la presente Ordenanza se entiende por local destinado a espacio de ocio y reunión de jóvenes aquel de titularidad privada destinado a actividades sin ánimo de lucro que los grupos de jóvenes, no constituidos como asociación, utilizan en su tiempo libre como lugares de reunión, encuentro y socialización.

3. A los efectos de esta Ordenanza, se entiende por grupos de jóvenes los constituidos, con carácter general, por personas con edades comprendidas entre los 15 y los 35 años.

#### Artículo 2. Ámbito de aplicación.

Quedan sujetos al cumplimiento de esta Ordenanza todos los locales, establecimientos e instalaciones incluidos en el artículo anterior cuyo funcionamiento se desarrolla dentro del término municipal de San Sebastián, con independencia de que sus titulares u organizadores sean personas físicas o jurídicas y que la actividad se realice de forma habitual o esporádica.

## CAPITULO II

### PROCEDIMIENTO ADMINISTRATIVO

#### Artículo 3. Comunicación Previa de Actividad Clasificada.

Con carácter previo al inicio de la actividad, el/la promotor/a de la actividad, en caso de ser menor de edad no emancipado con la firma de su representante, deberá presentar comunicación previa de actividad clasificada, según modelo elaborado al efecto y que se recoge como anexo a esta Ordenanza, aportando toda la documentación enumerada en el mismo.

También podrá presentar, con carácter previo y a título meramente informativo, los estatutos de la comunidad en la que se ubique la actividad, así como el seguro de responsabilidad civil si lo tuviera.

#### Artículo 4. Licencia de Obras.

Si fuera necesaria la realización de cualquier tipo de obra, con carácter previo a presentar la comunicación previa de la actividad en la forma prevista en el artículo 3, deberá solicitarse, obtenerse y ejecutarse las obras contenidas y autorizadas en la preceptiva licencia de obras.

#### Artículo 5. Registro de la actividad.

El Ayuntamiento desarrollará un registro de locales destinados a espacio de ocio y reunión de jóvenes basándose en los datos que obtenga por medio de esta Ordenanza.

6. artikulua. *Gazteria Zerbitzuaren jarduna.*

1. Udalak, Gazteria Zerbitzuaren bitartez, informatze, orientatze eta sentiberatze eginkizuna egin ahalko du, ordenantza honen xede den jarduera gauzatzean gatazkarik izatea saihestearren.

2. Horretarako, gazte taldeak ordezkari bat izendatu ahalko du, adinduna, besteak beste helburu hauek bete daitez:

– Udalaren eta lokala darabiltenen arteko elkarrizketa eta komunikazio trabagabea bideratzea.

– Lokalaren erabiltzaileen eta hirugarrenen artean gatazkarik izatea saihestearren, Gazteria Zerbitzuarengandik beharrezko informazioa eta orientazioa jasotzea.

– Ordezkatzen duen gazte taldearen aldetik jarduera bukatzea jakinaraztea.

3. Hala egokituz gero, taldearen ordezkariak Udalarari idatziz jakinarazi ahalko dio ordezkari izateari utzi nahi diola. Era berean, idatziz jakinarazi ahalko du taldearen beste ordezkari baten izendapena.

4. Orobat, gazte erabiltzaileen eta jabeakideen elkartearen arteko komunikazioa bideratzeko eginkizuna ere bete liteke, bi aldeoi laguntzeko sor litezkeen arazoak auzirik gabe ebazten.

5. Gazteria Zerbitzuak argibideak emango dizkie gazteei dauden lokalei eta honako ordenantza honi buruz.

III. KAPITULUA

LOKALEN ERAIKUNTZA ETA ERABILERA BALDINTZAK

7. artikulua. *Hirigintzako eta arkitekturako baldintzak.*

1. Lokalak hiri lurra edo lur urbanizagarriaren egon beharko dute, etxabeetan, sotoetan edo beheko solairuetan.

2. Lokalak sarrera zuzenean bide publikotik izan beharko dute, atalondotik independentea den sarbide batekin. Saltoki guneean edo antzeko tokietan dauden lokalei dagokienez, lokalaren sarbideetik eraikinaren irteerainoko gehieneko ibilbidea 25 metro baino gutxiagokoa izango da.

3. Lokala ez da beste lokal bati lotuta egongo, eta ez da bestelako erabilera duen lokal baten parte izango.

4. Gutxienezko garaiera librea, lokalaren barrualdean, gutxienez 2,50 metro izango da, edo eraikina eraikitzeke anean eskatzekoa dena.

5. Berariazko beste arau bat aplikagarri izan ezik, irteerako atearen zabalera gutxienez 0,80 metro izango da.

6. Behe solairuko lokaletako gutxienezko azalera erabilgarria, behe solairuan neurtuta eta solairuartea (halakorik izanez gero) zenbatu gabe, 25 metro koadro izango da, salbu eta 1995eko Hiria Antolatzeko Plan Orokorren aurretik legez baimendutako lokalak badira; azken horietan, baimendutako azalera errespetatu beharko da.

8. artikulua. *Suteak prebenitzeko baldintzak.*

1. Lokalak ebakuazio eskailera baldin badu, horrek CTE-DB-SUA kodeko 4.2. atalean xedatutakoa beteko du.

2. Lokalak eta kanpoko eremu segururaino ebakuatzeko ibilbideak larrialdiko argiak izango dituzte, eta ebakuazioa eta suteen aurkako babes baliabideak adierazteko seinaleak.

3. Okupazioa gehienez pertsona bat izango da 5 m<sup>2</sup> bakoitzeko, salbu eta lehenengo 50 m<sup>2</sup>-etan, non pertsona bat 3 m<sup>2</sup> bakoitzeko izango den. Guztira ezingo dira 50 pertsona baino gehiago sartu.

4. Goranzko ebakuazioa 4 metro baino gutxiagokoa izango da.

Artículo 6. *Actuación del Servicio de Juventud.*

1. El Ayuntamiento, a través del Servicio de Juventud, podrá desarrollar la función de información, orientación y sensibilización, a fin de evitar posibles conflictos en relación con el desarrollo de la actividad objeto de la presente Ordenanza.

2. A estos efectos, el grupo de jóvenes podrá designar una persona, mayor de edad, que le represente, en orden, entre otros, al cumplimiento de los siguientes fines:

– Facilitar el diálogo y la comunicación fluida entre el Ayuntamiento y los usuarios y usuarias del local.

– Recibir del Servicio de Juventud la información y orientación necesarias para evitar posibles conflictos entre las personas usuarias del local y/o terceros.

– Informar sobre el cese de la actividad por parte del grupo de jóvenes al que representa.

3. En su caso, el/la representante del grupo podrá comunicar al Ayuntamiento por escrito su deseo de cursar baja como tal, pudiendo comunicar, también por escrito, la designación de una nueva persona como representante del grupo.

4. En el mismo sentido, podrá desarrollarse la función de facilitar la comunicación entre jóvenes usuarios y la comunidad, para ayudar a las partes a que alcancen una solución amistosa en los conflictos que pudieran plantearse.

5. Por medio del Servicio de Juventud se dará información a las y los jóvenes sobre los locales existentes y la presente ordenanza.

CAPITULO III

CONDICIONES DE EDIFICACIÓN Y USO DE LOS LOCALES

Artículo 7. *Condiciones urbanísticas y arquitectónicas.*

1. Los locales deberán estar situados en suelo urbano o urbanizable y ubicados en plantas bajas, sótano o semisótano.

2. El acceso al local se efectuará directamente desde la vía pública por un acceso independiente al portal. En caso de locales situados en galerías comerciales o espacios análogos, el recorrido máximo desde el acceso del local hasta la salida del edificio será inferior a 25 metros.

3. El local no estará unido a otro local ni formará parte de otro local con un uso diferente.

4. La altura libre mínima en el interior del local no será inferior a 2,50 metros o la que en el momento de construcción del edificio fuere exigible.

5. Salvo que sea de aplicación otra norma específica, la anchura mínima de la puerta de salida será de 0,80 metros.

6. La superficie útil mínima de los locales, medida en planta baja y sin contar entresuelo, si lo hubiera, será de 25 metros cuadrados, salvo que se trate de locales legalmente autorizados con anterioridad al P.G.O.U de 1995, en los que se estará a la superficie autorizada.

Artículo 8. *Condiciones de prevención contra incendios.*

1. Si el local posee escalera de evacuación ésta cumplirá con el CTE-DB-SUA apartado 4.2.

2. El local y el recorrido de evacuación hasta el espacio exterior seguro dispondrá de alumbrado de emergencia y señalización de evacuación y de los medios de protección contra incendios.

3. La ocupación máxima será de 1 persona cada 5 m<sup>2</sup> excepto para los primeros 50 m<sup>2</sup> que será de 1 persona por cada 3 m<sup>2</sup>, no pudiendo sobrepasar el aforo de 50 personas.

4. La evacuación ascendente será inferior a 4 metros.

5. Egiturak gutxienez R-120 erresistentzia izango du.
6. Hormek suarekiko EI 120 erresistentzia izango dute, eta sabaiek REI 120, lokal bakoitza eraikinaren gainerako aldeetatik bereizitako sute sektorea izan dadin.
7. Eraikuntza, apaindura eta altzari elementuen suarekiko erreakzioa, gutxienez, C-s2,d0 izango da sabai eta hormetan, eta Efl zoruetan.
8. Lokalak hauts balioaniztunezko itzalgailuak izango ditu, 21A-113B eragin-kortasunekoak. Lokaleko ezein toki ez da izango itzalgailu batetik 15 metro baino gehiagora.
9. Lokalak suteak detektatzeko instalazioa izango du.

9. artikulua. Osasun eta ingurumen baldintzak.

1. Lokalak aireztatze naturala edota behartua izan beharko du.
2. Lokalak argizatze naturala edota artifiziala izan beharko du.
3. Instalazio elektrikoak Tentsio Txikiko Arautegi Elektroteknikoa edo hura ordeztzen duen araudia beteko du.
4. Ez da onartuko sukaldetik, plantxarrik, laberik edo kea sortzen duen edozein elementurik instalatzea.
5. Konketa eta komunontzia behintzat badituen komun bat izango du, salbu eta komun hori (halakorik baldin badago) erabilera komuneko eremuetan erabiltzeko aukera dagoela justifikatzen bada.

10. artikulua. Zaratak eta bibrazioak transmititzeari dagozkion baldintzak.

1. Funtzionatzen duen aldian, zarata eta bibrazio mailei dagokienez, ez dira gaitutako zarata eta bibrazioengatik sortutako kutsadura akustikoaren kontrako udal jarduketaren ordenantzaren (2000ko urriaren 3koa, 2006ko irailaren 26an aldatua; ikus Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 2000-10-17 eta 2007-01-10) eta 213/2012 Dekretuan (2012ko urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots kutsadurarena) ezarritakoak.

2. Dagoen makina oro ainguratzeko, bibrazioaren aurkako elementuak erabiliko dira.

11. artikulua. Erabilera baldintzak.

1. Jarduera lokalean baizik ez da gauzatuko. Ezingo da jarduera kanpora zabaldu, eta ezingo dira atera altzariak, tresnak edo jarduerak berezko duen beste edozein elementu.
2. Debeku da edonolako material nahiz produktu sukoiak eta gai toxikoak biltegitratzea.
3. Jolas edo joko makinari izanez gero, erabiltzeak prezio ordaintzea eskatzen ez duen eta saririk lortzea ekartzen ez duen motakoak izango dira.
4. Ez dago baimenduta lokalean zaborra metatzea. Kanpoko udal edukiontzietan utzi beharko da.
5. Lokalean animaliarik izanez gero, haien jabeak edo arduradunak behar bezala lagunduta eta zainduta egon beharko dute.
6. Lokalaren kanpoaldea eta ingurumariak higiene egoera egokian mantendu beharko dira.

IV. KAPITULUA

IKUSKAPENA ETA KONTROLA

12. artikulua. Administrazio ahalmenak.

Ordenantza hau aplikatzen dadin, Udalari dagokio:

- a) Lokalak eta instalazioak ikuskatzea.

5. La estructura tendrá una resistencia mínima R-120.
6. Las paredes tendrán una resistencia al fuego EI 120 y los techos REI 120 para que cada local constituya sector de incendio diferenciado del resto de edificio.
7. La clase de reacción al fuego de los elementos constructivos, decorativos y de mobiliario, será como mínimo en techos y paredes C-s2,d0 y en suelos Efl.
8. El local dispondrá de extintores de polvo polivalente eficacia 21A-113B de manera que ningún punto del local quede a más de 15 metros de un extintor.

9. El local tendrá una instalación de detección de incendios.  
Artículo 9. Condiciones sanitarias y ambientales.

1. El local deberá contar con ventilación bien natural o forzada.
2. El local deberá disponer de iluminación natural o artificial.
3. La instalación eléctrica cumplirá el Reglamento Electrotécnico de Baja Tensión o normativa que le sustituya.
4. No se permitirá la instalación de cocinas, planchas, hornos o cualquier elemento productor de humos.
5. Deberá disponer de un aseo dotado como mínimo de lavabo e inodoro, salvo que se justifique la posibilidad de utilización del mismo, si lo hubiere, en zonas de uso común.

Artículo 10. Condiciones de transmisión de ruidos y vibraciones.

1. Durante su funcionamiento, no se superarán los niveles de ruido y vibración máximos establecidos en la Ordenanza reguladora de la actuación municipal frente a la contaminación acústica por ruidos y vibraciones, de 3 de octubre de 2000, modificada el 26 de septiembre de 2006 (BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa de 17/10/2000 y 10/1/2007), así como el Decreto 213/2012, de 16 de octubre, de contaminación acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco (Boletín Oficial del País Vasco de 16/11/2012).

2. El anclaje de toda maquinaria existente se efectuará con elementos antivibratorios.

Artículo 11. Condiciones de uso.

1. La actividad se desarrollará exclusivamente en el local, sin que pueda extenderse al exterior, ni sacar mobiliario, enseres o cualquier otro elemento propio de la actividad.
2. Se prohíbe el almacenamiento de todo tipo de materiales o productos inflamables y sustancias tóxicas.
3. En el caso de que existan máquinas recreativas o de juego, serán del tipo cuya utilización no exija el pago de precio ni se obtenga ningún premio.
4. No se permite acumular basura en el local, debiendo depositarse en los contenedores exteriores municipales.
5. Los animales que se encuentren en el local deberán estar debidamente acompañados y atendidos.
6. El exterior del local y sus inmediaciones tendrán que mantenerse en condiciones higiénicas adecuadas.

CAPITULO IV

INSPECCIÓN Y CONTROL

Artículo 12. Facultades administrativas.

En orden a la aplicación de la presente Ordenanza, compete al Ayuntamiento:

- a) Inspeccionar los locales e instalaciones.

b) Jarduerak geldiaraztea eta lokalak ixtea, bai eta ondorengo artikuluetan xedatutakoari jarraituz egoki den beste edozein neurri hartzea ere.

c) Ordenantza honetan edo indarrean den gainerako lege-dien tipifikatutako arau hausteak zehatzea.

*13. artikulua. Ikuskatze eta kontrol jarduera.*

1. Udal zerbitzu eskumendunek edoniz eta beharrezko den aldiro egiaztatuko dute ea jarduera bat datorren ordenantza honetan ezarritako baldintzekin eta aplikatzekoa den araudiarekin.

Jarduketa horiek ofizioz egingo dira, edo alde batek dagoen salaketa idatziaren bidez eskatuta.

2. Lokal eta instalazioen titularrak edota erabiltzaileak behartuta daude udal zerbitzu eskumendunei sartzeko uztera, jarduera ikuska dezaten, bai eta horretarako beharrezko laguntza ematera ere.

Udal zerbitzu eskumendunei sartzeko ez uzteak zehapen espedienteak irekitzea ekarri ahalko du.

*14. artikulua. Hartu beharreko neurriak.*

1. Pertsona eta ondasunen segurtasunari edo osasungarritasun publikoari arrisku larria dakarkien gabeziarik aurkituz gero, edo araudia urratu eta auzokoei asaldura handia dakarkieten hotsak edo bestelako eragozpenak badirela egiaztatuz gero, aurrez lokalekoei entzun beharrik gabe lokala itxi eta zigilatuko da.

2. Aurreko idatz zatian adierazitako gorabeherak segurtasun edo osasungarritasunari edota auzotarren lasaitasunari larriki eragiten ez badiete, honela jokatu da:

a) Aurreziak jakinarazpena aurkeztu ez bada eta legezkotu baldin badaiteke, lokalaren jabeari eskatuko zaio egoera legezkotzeko, horretarako emandako epean. Epe hori inoiz ere ez da izango sei hilabete baino gehiago.

Gainera, inguruabarrengatik hala komeni bada, jarduera itxi ahalko da, interesdunari entzun eta gero.

b) Aurreziak jakinarazpena aurkeztu ez bada eta jarduera legezkotu ez badaiteke, itxi egingo da, interesdunari entzun eta gero.

c) Aurreziak jakinarazpena aurkeztu bada eta jardueran hutsuneak hauteman badira, interesdunari eskatuko zaio zuzen ditzala hutsuneak neurri zuzentzaile egokiak hartuta. Hala egin dela frogatu beharko zaio, dokumentuz, Udalarari.

Hutsuneen zuzenketa Udalak egoki deritzon epean egingo da. Epe hori inoiz ere ez da sei hilabete baino gehiago izango.

Epe hori bukatuta hutsuneak zuzendu direla jasota geratu ez bada, jarduera ixtea aginduko da, horretarako izapidetutako espedienteetan. Gainera, dagokion zehatze prozedura abiarazi ahalko da.

3. Arau-hauste motaren arloan egindakotzat jo daitezkeen egoerak edo jardunak egiaztatu ostean, zehapen espedienteak abiarazteko organo eskudunak komunitatean zerbitzuak eskaintzeko baimena eman dezake, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badira:

— Ustezko pertsona erantzulea adingabekoa izatea edo, bestela, hura gaitzeko legezko arau bat egotea eta idatziz eskatzea:

— Berak, azken urtean, arau-hauste motaren arloan egindakotzat jo daitezkeen egoera edo jardunak gauzatu ez izana.

b) Suspender las actividades y clausurar los locales, así como adoptar cualquier otra medida que proceda de conformidad con lo dispuesto en los artículos siguientes.

c) Sancionar las infracciones tipificadas en la presente Ordenanza o en el resto de la legislación vigente.

*Artículo 13. Actividad inspectora y de control.*

1. Los Servicios Municipales competentes verificarán, en cualquier momento y cuantas veces sea necesario, la adecuación de la actividad a las condiciones establecidas en la presente Ordenanza y a la normativa aplicable.

Dichas actuaciones se realizarán de oficio o a instancia de parte mediante la correspondiente denuncia escrita.

2. Las personas titulares y/o usuarias de los locales e instalaciones están obligadas a permitir el libre acceso de los Servicios Municipales competentes para que realicen la inspección de la actividad, así como a prestar la colaboración necesaria en la misma.

La negativa a permitir el acceso de los Servicios Municipales competentes podrá conllevar la apertura de expediente sancionador.

*Artículo 14. Medidas a adoptar.*

1. Detectadas deficiencias que hagan peligrar gravemente la seguridad de las personas y los bienes o la salubridad pública o bien se constate la existencia de ruidos u otras molestias que incumpliendo la normativa resulten altamente perturbadoras para la vecindad, se procederá, sin necesidad de audiencia previa, a la clausura y precinto del local.

2. Cuando las circunstancias señaladas en el apartado anterior no afecten gravemente a la seguridad o salubridad o a la tranquilidad del vecindario, se procederá en los siguientes términos:

a) Si no se hubiera presentado la comunicación previa y fuera susceptible de legalización, se requerirá al propietario del local para que regularice su situación, en el plazo que se le conceda al efecto, que en ningún caso será superior a seis meses.

Además, si las circunstancias lo aconsejan, se podrá clausurar la actividad, previa audiencia del interesado.

b) Si no se hubiera presentado la comunicación previa y la actividad no pudiera legalizarse, deberá procederse a su clausura, previa audiencia al interesado.

c) Si, habiéndose presentado comunicación previa, se detectaran deficiencias en la actividad, se requerirá al interesado para que las subsane, mediante la adopción de las oportunas medidas correctoras, la cual deberá justificarse documentalmente ante el Ayuntamiento.

La subsanación se llevará a efecto en el plazo que el Ayuntamiento considere adecuado, que en ningún caso podrá exceder de seis meses.

Transcurrido dicho plazo sin que conste haberse subsanado las deficiencias, se ordenará la clausura de la actividad en expediente tramitado al efecto, sin perjuicio de poder incoarse el oportuno procedimiento sancionador.

3. Constatadas situaciones o actuaciones susceptibles de ser consideradas incursas en el ámbito del tipo de infracción, el órgano competente para la incoación del expediente sancionador podrá autorizar la prestación de servicios a la comunidad, cuando concurren los siguientes requisitos:

— Que la persona presuntamente responsable sea menor de edad o, en otro caso, haya norma legal que lo habilite, y lo solicite por escrito.

— Que el mismo no haya incurrido en situación o actuación susceptible de ser consideradas incursa en el ámbito del tipo de infracción en el último año.

— Jarduna arau-hauste oso larritzat jotzeko modukoa ez izatea.

Baimenaren ebazpenean, zehapen espedientea ez irekitzea ekarriko duena, komunitatean eman beharreko zerbitzu zehatzak finkatuko dira, eta baita eman beharreko zerbitzuen ordu kopuruak ere. Horiek kalkulatzeko, lanbide arteko gutxieneko soldata aplikatuzetik eratorritako orduaren balioa aplikatu beharko zaio 35 lanorduko lanaldiari, eta orduak egiaztatutako jardunerako aurreikusitako zigorraren gutxieneko balioaren parekoak izango dira. Era berean, lanak betetzeko epea adieraziko da.

Eman beharreko zerbitzuei uko eginez gero edo horiek onartu ezean, edo egin beharrekoak epe barnean egin ezean, dagokion zehapen espedientea abiaraziko da.

Zerbitzuak eman ondoren, txosten frogagarria egingo da, eta hori izango da jardunen azken pausoa.

## V. KAPITULUA

### ZIGOR ERREGIMENA

#### 15. artikulua. *Arduradunak.*

1. Erantzule izango dira ordenantza honetan tipifikatutako ekintzak edo ez-egiteak doluz, erruz edo zabarkeria soilez egiten dituzten pertsona fisiko eta juridikoak, eta zehazki:

- Jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpenaren sustatzaileak.
- Lokalen erabiltzaile diren gazteak.
- Lokalaren jabetzaren titular direnak.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzko 2/1998 Legeko (1998ko otsailaren 20koa) 6.3 artikuluari jarraituz, 14 urtez beherakoak ez dira ordenantza honetan zehaztutako arau hausteen erantzule izango.

#### 16. artikulua. *Arau haustea.*

Ondorengo idatz zatietan zehaztutako arau haustea hartuko dira kontuan, eta honela sailkatuko dira: oso larriak, larriak eta arinak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko Legearen (3/98 Legea, 1998ko otsailaren 27koa) arau haustea (IL) laburtzapenarekin identifikatuak; eta ordenantza honen arau haustea, (O) laburtzapenarekin identifikatuak.

#### 1. Arau hauste oso larriak.

Arau hauste oso larriak dira ondorengo egitate hauek, baldin pertsona, haien ondasunei edo ingurumenari kalte edo arrisku oso larriak eragiten badiete, eta baldin ordenamendu juridikoa hautsiz egiten badira:

- Jarduera sailkatuaren aurretiazko komunikazioarekin batera doazen dokumentuetan eskatutako datuak ezkatutzea edo faltsutzea (IL).
- Eteteko edo ixteko aginduak ez betetzea, edo neurri zuzentzaileak behin eta berriz ez betetzea (IL).
- Gehienez sar daitezkeen gizabanakoen kopurua gainditzea (O).
- Edonolako materialak, produktu sukoiak eta gai toxikoak biltegitzea (O).
- Ordenantza honetan debekatutako jolas jarduerak egi-tea (O).

#### 2. Arau hauste larriak.

Arau-hauste larriak:

— Que la actuación no sea susceptible de ser calificada como infracción de carácter muy grave.

En la resolución de autorización, que conllevará la no apertura de expediente sancionador, se determinarán los servicios a la comunidad concretos a prestar y el número de horas de prestación, calculadas aplicando el valor hora que derivaría de la aplicación del salario mínimo interprofesional a una jornada laboral de 35 horas, equivalentes al valor mínimo de la sanción prevista para la actuación constatada. Igualmente, se señalará el plazo para su cumplimiento.

El desestimiento o la no aceptación de los servicios a prestar, así como su falta de cumplimiento satisfactorio en plazo, conllevará la incoación del correspondiente expediente sancionador.

Prestados los servicios se emitirá un informe acreditativo, que dará lugar a la finalización de las actuaciones.

## CAPITULO V

### RÉGIMEN SANCIONADOR

#### Artículo 15. *Personas responsables.*

1. Serán responsables las personas físicas o jurídicas que incurran a título de dolo, culpa o simple negligencia en las acciones u omisiones tipificadas en esta Ordenanza y, en concreto,:

- Las personas promotoras de la comunicación previa de la actividad clasificada.
- Los/as jóvenes usuarios/as de los locales.
- Las personas titulares de la propiedad del local.

2. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 6.3 de la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la Potestad sancionadora de las Administraciones Públicas del País Vasco, los menores de 14 años no serán responsables de las infracciones contempladas en la presente Ordenanza.

#### Artículo 16. *Infracciones.*

Se consideran infracciones las previstas en los apartados siguientes, las cuales se clasificarán en muy graves, graves y leves.

Constituyen infracciones a la Ley 3/98, de 26 de febrero, General de Protección al Medio Ambiente del País Vasco las identificadas con (MA) y a la presente Ordenanza, las identificadas con (O).

#### 1. Infracciones muy graves.

Son infracciones muy graves los siguientes hechos, cuando generen riesgos o daños de este carácter a las personas, sus bienes o al medio ambiente y se realicen contraviniendo el ordenamiento jurídico:

- La ocultación o el falseamiento de los datos exigidos en la documentación que se acompaña a la comunicación previa de la actividad clasificada (MA).
- El incumplimiento de las órdenes de suspensión o clausura, o el incumplimiento reiterado de medidas correctoras (MA).
- La superación del aforo máximo autorizado (O).
- El almacenamiento de todo tipo de materiales, productos inflamables y sustancias tóxicas (O).
- La realización de actividades recreativas prohibidas por la Ordenanza (O).

#### 2. Infracciones graves.

Son infracciones graves:

a) Artikulu honetako 1. puntuan jasotakoak, baldin pertsoneri, haien ondasunei edo ingurumenari kalte edo arrisku larriak eragiten badiete.

b) Lokalak irekitzea beharrezkoa den aurretiazko jakinarazpena egin gabe, edo aurretiazko jakinarazpenean jasotako baldintzei jarraitu gabe, horrek baldintza horiei funtsezko aldaketa egitea dakarrenean; bai eta beharrezko baimena gabe gerora instalazioak muntatzea ere (IL).

c) Administrazioaren ikuskatze lana oztopatzea, aktiboki edo pasiboki (IL).

### 3. Arau hauste arinak.

a) Arau hauste arintzat hartuko dira artikulu honetako 1. eta 2. idatz zatietan adierazitakoak, baldin pertsoneri, haien ondasunei edo ingurumenari gutxi eragiten dietelako oso larritzat edo larritzat jotzeko baldintzak betetzen ez badira.

b) Lokalean zaborra metatzea, bai eta kanpoko udal edukiontzietan ez uztea ere (O).

c) Lokalaren barruan animaliak izatea, haien jabeak edo arduradunak lagunduta ez bada (O).

### 17. artikulua. Arau hausteak preskribatzea.

Ordenantza honetan aipatutako arau hausteak ondorengo epe hauetan preskribatuko dira, egitatea egin zenetik edo ingurumen kaltea hauteman zenetik (berehalakoa izan ez bada) hasita:

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko Legean (3/98 Legea, 1998ko otsailaren 27koa) zehaztutako arau hausteak:

- a) Urtebete, arau hauste arinetan.
- b) Hiru urte, arau hauste larrietan.
- c) Bost urte, arau hauste oso larrietan.

2. Ordenantza honetan xedatutako arau hausteak:

- a) Sei hilabete, arau hauste arinetan.
- b) Bi urte, arau hauste larrietan.
- c) Hiru urte, arau hauste oso larrietan.

### 18. artikulua. Mailakatzea.

Ordenantza honetan jasotako arau hausteengatiko arau hausteak alderdi hauek aintzat hartuta mailakatuko dira: eragindako arriskua edo kaltea, lortutako irabazia, nahitakotasuna, berrerortzea eta gizarte oihartzuna, bai eta dauden inguruabar aringarri edo astungarriak ere.

Administrazio erantzukizunaren inguruabar aringarritzat joko da pertsoneri, haien ondasunei edo ingurumenari eragindako arriskuak edo kalteak txikiagotzen edo konpontzen dituzten neurri zuzentzaileak hartzea zehapen espediente bat abiarazi aurretik.

### 19. artikulua. Zehapenak.

A) Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko Legean (3/98 Legea, 1998ko otsailaren 27koa) zehaztutako arau hausteak egiteagatik, zehapen hauek ezarri ahalko dira (horien artean bat aukeratuta, edo bata besteari metatuta):

1. Arau hauste arinetarako.
  - 100 - 600 euroko isuna.
  - Ohartaraztea.
  - Aldi baterako itxiera, hilabeterainokoa.
2. Arau hauste larrietarako.
  - 601 - 3.000 euroko isuna.
  - Aldi baterako itxiera, hiru hilabeterainokoa.
  - Gehienez hiru hilabetez jarduera bera egiteko gaitasun-gabetzea.

a) Las contempladas en el apartado 1 del presente artículo cuando generen riesgos o daños de carácter grave a las personas, sus bienes o el medio ambiente.

b) La apertura de locales sin la preceptiva comunicación previa o sin ajustarse a las condiciones recogidas en la comunicación previa, cuando ello implique una modificación sustancial de aquellas condiciones, así como el montaje de instalaciones eventuales sin la preceptiva autorización (MA).

c) La obstrucción, activa o pasiva, a la labor inspectora de la Administración (MA).

### 3. Infracciones leves.

a) Se considerarán infracciones leves las señaladas en los apartados 1 y 2 del presente artículo, cuando por su escasa incidencia sobre las personas, sus bienes o el medio ambiente no se den los supuestos para dicha calificación (MA).

b) Acumular basura en el local, así como no depositarla en los contenedores exteriores municipales (O).

c) La presencia de animales dentro del local, sin estar acompañados por su dueño o persona responsable (O).

### Artículo 17. Prescripción de las infracciones.

Las infracciones a que se refiere la presente Ordenanza prescribirán en los siguientes plazos, a contar desde la comisión del hecho o desde la detección del daño ambiental si éste no fuese inmediato:

1. Infracciones previstas en la Ley 3/98, de 26 de febrero, General de Protección al Medio Ambiente del País Vasco:

- a) Un año, en caso de infracciones leves.
- b) Tres años, en caso de infracciones graves.
- c) Cinco años, en caso de infracciones muy graves.

2. Infracciones previstas en la presente Ordenanza:

- a) Seis meses, en caso de infracciones leves.
- b) Dos años, en caso de infracciones graves.
- c) Tres años, en caso de infracciones muy graves.

### Artículo 18. Graduación.

Las sanciones por las infracciones contenidas en la presente Ordenanza se graduarán teniendo presente el riesgo o daño causado, el beneficio obtenido, la intencionalidad, la reincidencia y la repercusión social, así como las circunstancias atenuantes o agravantes que concurren.

Será considerada circunstancia atenuante de la responsabilidad administrativa la adopción, con anterioridad a la incoación de un expediente sancionador, de medidas correctoras que minimicen o resuelvan los riesgos o daños sobre las personas, sus bienes o el medio ambiente.

### Artículo 19. Sanciones.

A) Por la comisión de las infracciones previstas en la Ley 3/98, de 26 de febrero, General de Protección al Medio Ambiente del País Vasco, se podrán imponer, alternativa o acumulativamente, las siguientes sanciones:

1. Para las infracciones leves.
  - Multa de 100 € a 600 €.
  - Apercibimiento.
  - Clausura temporal hasta un mes.
2. Para las infracciones graves.
  - Multa de 601 € a 3.000 €.
  - Clausura temporal hasta tres meses.
  - Inhabilitación de hasta tres meses para realizar la misma actividad.



3. Arau hauste oso larrietarako.
  - 3001 – 9000 euroko isuna.
  - Urtebeterainoko itxiera.
  - Gehienez urtebetez jarduera bera egiteko gaitasungabetzea.

B) Ordenantza honetan zehaztutako arau haustek egiteagatik, zehapen hauek ezarri ahalko dira:

1. Arau hauste arinetarako, 100 – 600 euroko isuna.
2. Arau hauste larrietarako, 601 – 1.500 euroko isuna.
3. Arau hauste oso larrietarako, 1501 – 3.000 euroko isuna.

#### 20. artikulua. Zehapenak preskribatzea.

Zehapen oso larriengatik ezarritako zehapenak hiru urtera preskribatuko dira; zehapen larriengatik ezarritakoak, bi urtera; eta zehapen arinengatik ezarritakoak, urtebetera.

Preskribatzeko epea, zehapen ezartzeko ebazpena irmo bihurtzen den egunaren biharamunean hasiko da.

#### 21. artikulua. Zehatzeko prozedura.

Zehapen prozedurak Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigorrezko Ahalmenari buruzko 2/1998 Legean (1998ko otsailaren 20koa) xedatutakoari jarraituko dio.

### ALDI BATERAKO XEDAPENA

Ordenantza honen indarraldia hasi baino lehen jardunean diren lokalek, haren indarraldia hasten den egunaren biharamunetik sei hilabeteko epean, jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpena aurkeztu beharko dute.

### AZKEN XEDAPENA

Ordenantza behin betiko onartu eta gero, ordenantza honen indarraldia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean hasiko da.

Donostia, 2015eko urtarrilaren 29a.

### ERANSKINA

Jarduera sailkatua aurretiaz jakinarazteko eredua.

3. Para las infracciones muy graves.
  - Multa de 3001 € a 9000 €.
  - Clausura hasta un año.
  - Inhabilitación hasta un año para realizar la misma actividad.

B) Por la comisión de las infracciones previstas en la presente Ordenanza, se podrán imponer las siguientes sanciones:

1. Para las infracciones leves, multa de 100 € a 600 €.
2. Para las infracciones graves, multa de 601 € a 1.500 €.
3. Para las infracciones muy graves, multa de 1501 € a 3.000 €.

#### Artículo 20. Prescripción de las sanciones.

Las sanciones impuestas por faltas muy graves prescribirán a los tres años, las impuestas por faltas graves, a los dos años, y las impuestas por faltas leves, al año.

El plazo de prescripción comenzará a contarse desde el día siguiente a aquel en que adquiera firmeza la resolución por la que se impone la sanción.

#### Artículo 21. Procedimiento sancionador.

El procedimiento sancionador se ajustará a lo dispuesto por la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la Potestad sancionadora de las Administraciones Públicas del País Vasco.

### DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Los locales que estén en funcionamiento con anterioridad a la entrada en vigor de esta Ordenanza deberán aportar, en el plazo de seis meses desde su entrada en vigor, la comunicación previa de la actividad clasificada.

### DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ordenanza, una vez aprobada definitivamente, entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 29 de enero de 2015.

### ANEXO

Modelo de comunicación previa de actividad clasificada.